



PRENTSA BULEGOA OFICINA DE PRENSA

ELAren Nazio Batzordearen ebazpena

Aberri Eguna 2009

Aberri Egunez, ELAk Euskal Herri solidario, batu eta libre batekiko konpromisoa berresten du.

Exijentzia hori gogoan, aurten ezinbestean aipatu beharra dago lan-munduak pairatzen duen egoera. Egoera hau are larriagoa da, salatu izan dugun moduan, aurreko urteetan izan den hazkunde ekonomikoa ez delako berdintasuna eta gizarte-justizia areagotzeko baliatu. Orain enplegua neurrigabe nola suntsitzen den ikusten dugu: hasteko, aldi baterako milaka beharginei kontratua eteten diete; gero, banakako kaleratzeak eta erregulazio-espedienteak, eta lanean ari direnei malgutasun ezin gogorragoa ezartzen zaie. Emakumeak, gazteak eta etorkinak, egoerarik ahulenean zeudenak alegia, ari dira uneotan gehien sufritzen.

Krisi hau nazioarteko erakundeek (NMF, MME, EB...) eta estatuak erabakitako politika neoliberalen ondorio zuzena da; eurek indar-erlazioa kapitalaren eta enpresen aldera makurtu dute. Gurean, autogobernuko instituzioak ez dira kezkatu gizartearen gehiengoaz. Alderantziz, Europako zerga-presiorik txikiena eta gizarte-gasturik apalena edukitzea erabaki dute, aurrekontuak superabitaz itxita eta familien zorra etengabe hazten zelarik. Bitartean, beharrian sozialak gero eta handiagoak egin dira eta enpresaburuen klaseari diru-laguntza eskuzabalak eman dizkiete.

Bestalde, agenda politikotik desagertu egin dira, baita agintzen duten alderdi abertzaleen kasuan ere, estatuaren aurrean eskumenak lortzeko egindako aldarrikapenak: gizarte-segurantzak, enplegu-politikak edota lan-legeria. Are gehiago, erakundeek onartu egin dituzte finantza-baliabideak, estatuak ezarritako kudeaketa erabiltzeko baldintzapean, alor beraren xedea desitxuratuta ere. Horixe gertatu da langileen etengabeko heziketarekin. Beraz, autogobernua erabili den moduari etsigarria irizten diogu. Arrazoi honek ere bultzatu du euskal gehiengo sindikala datorren maiatzaren 21erako greba orokor deialdia egitera; egoera honetan langile-klasearen helburu eta borrokekin bat egiten dugu, protesta, aldarrikapen eta elkartasunezko mobilizazio batekin. ELAk premiazko ikusten du enplegua mantendu eta sortzea, soldaten eta gizarte-babesak jasaten duten erasoari aurre egitea, eta justizia fiskala eskatzea, baita krisiaren aurkako aurrekontuak ere.

ELAren ustez etsigarria izan da ere EAEn agindu duten alderdi abertzaleek edozein indar subiranistarentzat erabateko garrantzia duen tresna, kontsulta, zer nola erabili duten; ez dute bat ere jokabide sinesgarririk izan. Kontsultaren alde plazaratu ziren alderdiek ez zuten behar besteko konpromisorik agertu, eta hura bultzatzeko nahiz

edukiak zehazteko ez zituzten beharrezko aliantzak bilatu, eta estatuaren ezetza ia segurua izan arren, ez zituzten alternatiba politikoak bideratu, ez masekin, ez erakundeetan.

Estatuak bere estrategia nagusia ez du ezkututzen: orain EAE estatuko 17 autonomietatik bat gehiago izan dadin lortzea. Horretarako, PPk eta PSOEek sustatu zuten estatu-ituna duela urteak ari da jo eta ke lanean, bata bestearen atzetik egindako oldarraldi zentralista, autoritario, antidemokratiko eta errepresiboekin. Duela bi urte Nafarroako gobernuak nola osatu zen, edota estatutu berriari buruzko eztabaida aintzat ez hartzea, horiek ere itun hura islatzen dute, edo duela gutxi izandako hauteskundeetako 'putxerazo'ak, non hautes-zerrendak ezeztatu eta beroien bultzatzaileak espetxeratu egin dituzten. Honelako estatu baten aurrean, transbertsalitate printzipioa gobernu-alternatibak osatzeko baliagarri izango da, baina Euskal Herria aintzat hartzearekin ez dauka zerikusirik.

Estatuak ez da demokratikoa; giza-eskubideen aurkako jokabideak babesten ditu, eta errealitate nazionalekiko ez du errespeturik; are gutxiago aitortzen die inolako nortasunik. Halaxe geratu da agerian: Hautagaiak espetxeratzea, NBEko Kontalari Bereziak argitaratu duen txostenean borroka antiterroristaren baitan giza-eskubideen zein oinarritzko askatasunen sustapen eta babesari buruz jaso den guztia, eta azken urtean bertan jazo den beste hainbat gertakarik frogatu dute. Gainera, oraindik ere hor daude egoera jasanezinak: euskal preso politikoena eta tratatu txar eta tortura salaketak; hau legeria antiterroristak ezkututzen du sarri.

Egoera honetan ELAk ez du ikusten mugimendu abertzaleak oro har behin betiko diagnostiko simple batera iritsi denik: estatuek euskal errealitate nazionala ez dute aitortzen. Eta sindikatuak diagnostiko horrekin bat datozen estrategiak ere ez ditu ikusten. Defizit honek eragiten du, ELAren iritziz, unibertso abertzalean dagoen etsipen eta antzutasuna hedatzea. Gogoeta honi egokia irizten diogu, halaber, jarduera armatua euskal prozesu subiranista batekin batera daitekeela uste dutenentzat ere.

ELAk gaitzetsi egiten ditu berriro gure herrikide askok jasaten dituzten atentatuak eta bortxa. Baina gainera onartezina dela uste dugu estatuarekin erabakitzeke euskal esparruari buruz egin beharreko balizko negoziazioan ETAk bere burua protagonista nagusitzat agertzea. Gure irudiko jarrera hau ez da zilegi; desegokia da eta herri honen interesekin ez dator bat, gehiengoak protagonista izan nahi baitu bere askapen prozesuan, bide zibil, demokratiko eta bakezkotik jota.

Hain zuzen, ez dugu ukatzen borroka armatua desager daitekeela elkarrikketa politikoaren ondorio izango den akordio baten baitan. Areago, hau ELArentzat hipotesi desiragarria litzateke. Baina autodeterminazio eskubidea ezin da borroka mota hori baztertzeko minimo izan, eta gutxiago berari eusteko aitzakia. Dinamika honek gure herria konpon ezineko espiral batera eramaten gaitu, estatuaren interesen mesedetan: Hori islatzen dute Rubalcaba ministroak duela gutxi esandako hitzek, borroka armatua amaitu arte elkarrikketarik ez zela egongo, eta ETAren posizioak, hots, su-etena azken eduki politikoak negoziatu gabe ez zela etorriko adierazi izanak.

Horregatik, ELAren iritziz autodeterminazio eskubideak ez du eskatu beharreko minimo izan behar, helburu estrategiko baizik, eta beraren inguruan bildu behar dira alde dauden indar sozial, sindikal eta politiko guztiak. Bestela esan daiteke: ELArentzat prozesu subiranistatik ez da izango konponbide erdua berrikusten ez bada. Estatuari gure burujabetza erauzteko erabakitzeke eskubidearen alde aktibatu behar da gizartea, eta ez negoziazio politiko baten eskaintea bilatu.

Aurtengoan ere ELAk nabarmendu egin nahi du Ipar Euskal Herriko borroka abertzale eredugarria. Iparraldean abertzaleek botere politiko instituzionalaren lilura faltsuei uko eginda, eta bortizkeriaren eta klandestinitatearen epikarik gabe, arlo nazionalen estrategikotzat jotzen duten gai batean -Euskal Herriko Laborantza Ganbara- indarrak bategiten asmatu dute, beren artean, baina baita sektore politiko, sozial eta instituzional zabalagoak erakarriz. Duela gutxi argitaratu den epaia, Ganbara kargurik gabe utzi duena, arrakasta bikoitza da (Ganbarari eta borroka erari dagokiona), eta agian etorkizunean ezagutuko dugu bere benetako garrantzia.

ELAk inbidia onez ikusten du borroka soziala, konpromiso militantea eta nekazaritza eredu batentzat zein bultzatzen dutenentzat erabilgarria den proiektua bateratzen dituen eredu hori. Izan ere, Euskal Herria bere biztanle guztientzat jasangarria eta bizitzeko modukoa izan dadin lan nekaezina egiten ari dira.

Aberri Egunez aipatu beharra dago Euskal Herri batu eta libre baten aldeko borrokan eragile eta aktore sozialen arteko batasuna ezinbestekoa litzatekeela; batasun hori ez egotea dugu egun honetan alderik mingarrienetakoa, aurten ere. Hartara, ELAk bere kideei dei egiten die beren ilusioa eta konpromiso militante abertzalea berritu dezaten, Euskal Herri burujabe eta justu batera iristeko oztopo diren iraganeko zamak eta egungo arazoak kentze aldera.

Gora Euskal Herria askatuta!

Gora euskal langileria! Gora greba orokorra!